

# Juan Ramon Murua da EHUko Euskara errektoreorde berria

*Irakasleentzako banakako soldata osagarriak onartu ditu Unibertsitateak*

G. Agirre / Bilbo

**Juan Ramon Murua Mujika Ekonomia eta Enpresa Zientzien fakultateko Ekonomia Aplikatuko irakaslea da EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreorde berria. Joan den otsailetik Euskara errektoreorde lanetan aritu den Jaione Garciak kargua utzi du, arrazoi pertsonalak direla medio.**

AZKEN zortzi hilabeteetan EHUko Euskara errektoreorde karguan jardun duen Jaione Garciak ardura utzi du, arrazoi pertsonalengatik. Horrela jakinarazi zion EHUko Gobernu Batzordeari Manuel Montero errektoreak atzo.

Juan Ramon Murua Mujika EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Ekonomia Aplikatuko irakasle titularrak izango du ardura hori. Murua Bizkaiko campuseko Euskara zuzendaria izan da 1998. urtetik.

Garciak errektoreorde postua bete duen hilabeteetan, besteak beste, ikasturte honetarako 62 irakasle elebidunen plazak onartu dira.

Bestalde, irakasleentzako banakako soldata osagarri buruzko proposamena onartu zuen atzo Gobernu Batzorrak. Orain EHUko Gizarte Kontseiluak berretsi behar du proposamena.

EHUko Errektoretza talde-

ko kideek nabarmendu zuten, «ekimen hori aitzindaria da. Beste Unibertsitate batzuk lehenago ezarri badute ere, sistemaren eredu eta filosofia EHUk berak landu du».

Sistemak hiru motako soldata osagarriak aurreikusten ditu: irakaskuntza, ikerkuntza eta instituzioetan betetako ardurengatik edo garatutako lanengatik.

EHUko irakasleek, orotara, 7.228 soldata osagarri eskatu dituzte eta Ebaluaketa Batzordeak 5.113 baino ez ditu aintzat hartu; hau da, % 71. Soldata osagarri horiei aurre egiteko aurrekontua 1.300 milioi pezetakoa da (52 milioi libera).

Bestalde, Gobernu Batzorrak 2000. urteko aurrekontuaren aurreproiektua onartu zuen atzoko bileran. Aurrekontua 37.142 milioi pezetakoa da, aurreko ekitaldikoarekin alderatuz % 8,46 handiagoa.

## Manifestazioa antolatu du Oinarriak-ek Iruñean


■ *Ofizialtasunaren alde izanen da, abenduaren 2an*

Alberto Barandiaran / Iruñea

EUSKARAREN ofizialtasunaren alde manifestazioa egiteko deia egin zuen atzo Oinarriak taldeak, eta euskararekiko atxikimendua duten ororen konpromiso eta ahalegina eskatu zuen «euskaren etorkizuna gure indarrekin ateratzeko». *Euskara, nafar guztion eskubidea, ofiziala leloa izanen du deialdiak eta abenduaren 2an izanen da, eta azken asteotan Nafarroan hizkuntza politikaren inguruan gertatu diren berrien aurrean erantzuna emateko antolatu da.*

Deialdiaren antolatzaileek

adierazi zuten, hizkuntzaren egoera Parlamentuan eztabaidatzea UPN eta PSN taldeek baztertu izanak eta administrazioan euskararen erabilera arautzeko Gobernuak prest daukan foru dekretuak «beharrezko» egiten du ezadostasuna agertzea. «Hizkuntza eskubideen aldarrikapena, euskararen arloz arloko egitasmoen garapena eta euskararen etorkizuna gure indarrekin atera beharko dugu aurrera, babes eskasarekin eta oztopo asko gaindituz», dio atzo Oinarriak-eko kide Mikel Aldasorok eta Rikardo Ederrak irakurri zuten testuak.



BOB EDME

**Lur Berri kooperatibak arto transgenikoa bildu du Amikuzen.** Ezohiko arto bilketa egin zen herenegun Amikuzen. Izan ere, Lur Berri kooperatibak Amenduzeko eta Arrutako bi etxaldetan landarazi zuen arto transgenikoa bildu zuen. Lantegiak laborariak arratsaldean berean abisatu zituen eta artoa biltzeko tresnek lanari ekin zioten arratsaldeko 16:00etatik goiti. Bi orduz arto eremua bildua zen eta biltzaileek artoa Aiziritzeraino eraman zuten, hots kooperatibaren zentroraino. Laborariak azken unean abisatuak izan arren, ELB sindikatuak bere kideak bildu zituen bilketa unean eta artoaren tratamendua jarraitzeko asmoa agertu zuten. Hain zuzen, arto transgenikoa landatua izan zela zabaldu zenean, euskal laborarien sindikatua Lur Berriko arduradunekin bildu zen eta azalpenak eskatu zituzten. Arto saltzaileak adierazi zuen hazia kutsatua zela kasualitatez eta berandu jakin zuela.



**AZAROAREN  
4tik 12ra**

**ETENIK  
GABE  
12:00etatik  
21:00etara**

**AL  
MO  
NE  
DAS  
BILBAO  
2000**

**FERIA INTERNACIONAL DE BILBAO** **BILBOKO NAZIOARTEKO ERAKUSTAZOKA**

Apdo. 468 - 48080 Bilbao • Tel. (34) 94 428 54 00 - Fax. (34) 94 442 42 22  
http: www.feriaint-bilbao.es • e-mail: fib@feriaint-bilbao.es